## ibilaldiak

### Urtarrilak 13-14

**ARABA**

**Gasteiz** *(Mercedes Benz)* • Larunbatean Oña, Trespaderne ibilaldia. Tel: 945-185403.
**Gasteiz** *(Edurtza)* • Txurrukopunta (998 m).
**Laudio** *(Goikogane M.T.)* • Aiurdin, Amaritu, Armikelo. Tel: 94-6725021.

**BIZKAIA**

**Astrabudua** *(Atxazpe)* • Los Tornos, Cañoneros.
**Balmaseda** *(Balmaseda M.T.)* • Pico de la Cruz (803 m), Galdames. Tel: 94-6800646.
**Basauri** *(Baskonia)* • Elurretara irteera. Reinosara. Tel: 94-4495728.
**Bilbo** *(Alpino Club)* • Valdecebollas (2.139 m). Palentzia.
**Leioa** *(Leioa M.T.)* • Kanpezu, Costalera (1.234 m), Nazar. Kodes mendikatea.
**Meatzaldea** *(Meatzal Fabrik)* • Markina, Mendibil (610 m).
**Ondarroa** *(Aurrera M.T.)* • Udala auzoa (Arrasate), Udalaitz, Urkiola mendatea. Tel: 656-773494.
**Sestao** *(Alpino)* • Kanpazar mendatea, Intxorta (737 m), Ermua. Tel: 94-4721379.

**GIPUZKOA**

**Andoain** *(Euskalduna)* • Zazpiak Bat ibilaldia. 18. etapa. Irati, Belozkarre (1.173 m), Zalagaina (1.053 m), Atharratze. Tel: 943-592232.
**Azpeitia** *(Lagun Onak)* • Elosu, Irimo, Zumarraga. Gaztetxoen ibilaldia. Tel: 943-812025.
**Azkoitia** *(Anaitasuna)* • Umeen ibilaldia. Brinkola, Aztiria.
**Donostia** *(C.V. Camping)* • Pont d'Espagnera asteburu osorako. Iraupen eskiko irteera ikastaroa izango da bertan. Tel: 943-428479.
**Donostia** *(Antiguako Mendizaleak)* • Kanbo, Urtsuia, Lekorne. Tel: 943-211440.
**Eibar** *(Klub Deportiboa)* • Larunbatean, Atxarte, Barazar. Tel: 943-201904.
**Donostia** *(Añorga M.T.)* • Eski irteera, Gourettera.
**Mutriku** *(Burumendi M.T.)* • Udala auzoa (Arrasate), Udalaitz, Urkiola.
**Trintxerpe** *(Trintxer M.T.)* • Donostia, Rekalde Berri, Urumea ibaiaren arroari jarraiki. Tel: 943-382221.
**Zarautz** *(Pagoeta)* • Mandubia, Murumendi, Andazarrate. Tel: 943-132911.

**FURGONETA EKIPATUA SALGAI**
**RENAULT TRAFICC 1.000 Combi**
EGOERA OSO ONEAN
☎ 94 470 03 29

## bidaztiaren orriak




Desnivel

Bi dira azken zenbakiko gai nagusiak: bata, Mark F. Twighti egindako elkarrizketa (azala ere berea da), eta bestea, Shipton Orratzeko *Akelarre* bidea, Joserra Eskibelek idatzia. (Ikus irailaren 29ko Mundumira). Beste gaien artean: Abruzziko dukearen historia, Boiko bailarako jauzi eta korridoreak, Grazalema...




GRANDES ESPACIOS

Azkeneko zenbakiak Pirinioetan lau ibilbide samur azaltzen ditu, goimendiaren zirrara sentitzeko. Mendiko *snowboard*-ari buruzko artikulua ere polita da. Mendiko kirolen artean, Monica Aguilera Salomon Extreme taldeko kidea elkarrizketatu dute. Irakurleen galderei erantzuteko tarte bat ere zabaldu dute.




PAGOETA

Zarauzko Pagoeta taldearen azken aldizkarian gai interesgarri ugari jorratzen dira: Aspeko igoera *Murcielagos* bidetik, Literolako bailaratik zeharreko txangoa, Dolomitetako Ferratak, Jon Belokiri egindako elkarrizketa, Zarauztik Debarako ibilbidea...



## buzoia

**Zumarraga-Urretxu** *(Ostadar)* • Bidegoian, Gazume (997 m), Pagoeta (714 m), Laurgain Parkea. Tel: 943-723385.

**NAFARROA**

**Elizondo** *(Baztango Mendizaleak)* • Iraperri.
**Iruñea** *(Txantrea M.T.)* • Otxondo, Elizondo zeharkaldia.

### Urtarrilak 20-21

**ARABA**

**Gasteiz** *(Satorra M.T.)* • San Lorenzo (2.262 m), Valdezcaraytik.
**Gasteiz** *(Peña Karria)* • Altsasu, Labargain (1.154 m). Goizeko buelta. Tel: 945-270591.
**Gasteiz** *(Edurtza)* • Aranguren (1.158 m).

**BIZKAIA**

**Balmaseda** *(Balmaseda M.T.)* • Kolitza (874 m). San Sebastian jaia. Tel: 94-6800646.

**GIPUZKOA**

**Andoain** *(Euskalduna)* • Andazarrate, Gazumeko koba, Larraul. Haurren ibilaldia. Tel: 943-592232.
**Azkoitia** *(Anaitasuna)* • Azkoitia, Karakate, Elgoibar.
**Irun** *(Mendizaleak)* • Artikutza, Ekaitza, Mendaur, Ituren. Tel: 943-612919.
**Pasaia** *(Itxastarrak)* • Sunbilla, Mendaur (1.131 m), Aranatz. Tel: 943-390719.

**NAFARROA**

**Elizondo** *(Baztango Mendizaleak)* • Urrizpilota.
**Iruñea** *(Txantrea M.T.)* • Larunbatean, Peña Karria.
**Lizarra** *(Lizarra M.T.)* • Gorbeia. Tel: 948-552235.

## ikastaroak

### Urtarrilak 27-28

**Donostia** *(Mendiak eta Herriak)* • Mendiko eski ikastaroa. Hastapena. Panticosa, Portalet inguruan. Irakaslea: Karmel Leizaola. Gaiak: jaitsiera teknikaren hobekuntza; eski hastapena pistaz kanpo; elurraren ezagutza; elurroldeak. Lehenengo egunean, pistan eta pistaz kanpo. Bigarren egunean, igoera edo mendiko eski zeharkaldia egingo dugu.

### Otsailak 3-4 eta 10-11

**Donostia** *(Goimendi Eskola)* • Mendiko eski ikastaroa. Hastapena eta hobekuntza. Lehen asteburua Panticosa-Portaleten, eta bigarrena Zuriza-Hechon. 42 lagunentzat izango da lekua. Ikastaroaren zuzendaria: Karmel Leizaola. Prezioa: urtarrilaren 26a arte, 26.500 pezeta, eta hortik aurrera 32.000 pezeta. Izena ematea eta informazioa: 943-461440 eta 943-764851.

**oharra:**

Urteberria dela eta, datorren urteko ibilaldi, proiekzio, ikastaroeta abarren egutegia ahalik eta azkarren bidali Buzoia atal honetan lekua izan dezaten.
**EUSKALDUNON EGUNKARIA (MUNDUMIRA gehigarria).**
**Gudarien etorbidea z/g.**
**20140-ANDOAIN**
**mundumira@egunkaria.com**

## proiekzioak

### Urtarrilaren 12tik

**Gasteiz** *(Vital Kutxa)* • Mendiko jardunaldiak amaitzeko Joan Joverrek bi emanaldi eskainiko ditu gaur: Arratseko 18:15ean, SD aretoan neguko eskaladei buruzko hitzaldi teknikoa emango du. Gaueko 20:15ean, berriz, Vital Kutxako aretoan (Dendaraba) Alpeetako ipar hormei buruzkoa.

## Joan Joverrek Alpeetako ipar hormei buruzko proiekzioarekin itxiko ditu gaur Gasteizko jardunaldiak





Aste osoan goimendiari buruzko jardunaldiak izan dira Gasteizen, goi mailako gonbidatuekin: Jesus Almarza eta Jordi Farre, Iosu Merino eta Juan Carlos Gonzalez. Gaur amaituko dira jardunaldiak, Joan Jover katalanak eskainiko dituen bi emanaldiekin. Arratsaldeko 18:15ean, SD aretoan neguko eskaladei buruzko hitzaldi teknikoa emango du. Gaueko 20:15ean, berriz, Vital Kutxako aretoan (Dendaraba) Alpeetako iparreko hormei buruzkoa. Proiekzio horretara nahi duena joan daiteke. Sarrera doan.